

2021eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA



JARDUERA-PROTOKOLOA COVID-19

2021eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA

1. SARRERA

Hezkuntza Sailak 2021ko Ebaluazio Diagnostikoa (ED21) egingo du funts publikoekin sostengatutako EAEko ikastetxe publiko eta itunpeko guztietan, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako geletan.

Hezkuntzako sailburuordearen 2021eko urtarrilaren 19ko EBAZPENEAN, 2021eko Ebaluazio Diagnostikoaren datak eta ezaugarriak azaltzen dira.

Hezkuntza Ebaluazio eta Ikerketarako Institutua (ISEI-IVEI) arduratzen da ebaluazio hori egiteaz. Horretarako, ikastetxeekin harremana izatea ekarriko duten zenbait zeregin kudeatuko dituen enpresa bat kontratatu behar du.

Oraingo honetan, Ikertalde Grupo Consultor SA da enpresa esleipenduna.

Dokumentu honen xedea da COVID-19 izeneko gaixotasunaren eragile den SARS-CoV-2 koronabirusaren segurtasun- eta osasun-alderdiak kontuan hartzen dituen jarduera-protokoloa ezartzea.

Jarduera-protokolo hau Ikertalde kontratatutako pertsoneri bakarrik zuzenduta dago, ED21 proiektuan parte hartzen duten ikastetxeekin zerikusia duten lanak egin behar badituzte bai aurrez aurre, bai ikastetxeetan erabiliko diren objektuak manipulatzu.

ED21ekin lotutako zereginak garatzea du helburu, ebaluazioan inplikaturako pertsona guztien segurtasuna eta osasuna bermatuz:

- Enpresak EDrekin lotutako lanak egiteko kontratatutako langileak.
- Ikastetxeetako langileak eta ikasleak.

Kontuan izan behar da, SARS-CoV-2 koronabirusak eragindako pandemia-egoera honetan, Ikertalde ED21erako kontratatutako pertsonak beren lanerako erreferentzia gisa hainbat Kontingentzia-plan eta Jarduera-protokolo izango dituztela, beren zereginak egiten ari diren lekuaren arabera:

- Ikertaldeko kontingentzia-plana.
- Ikastetxe bakoitzeko kontingentzia-plana.
- ED21eko COVID-19 jarduera-protokoloa.

2. ZEREGINAK EGITEN DIREN LEKUAK

Ikertalde ED21ekin lotutako lanak egiteko kontratatutako langileek hainbat lekutan egin beharko dute lan:

- **Enpresaren lokalak.** Enpresaren lokaletan lanak egiten direnean, enpresak bere kontingentzia-planean ezarritako arauak bete beharko dira.
- **Ikastetxeak.** Ikastetxeetara joatean, ikastetxe bakoitzeko kontingentzia-plana errespetatu beharko da, eta jarduera-protokolo honi jarraituz jardun.
- **Garraioa.** Ikastetxeetara ordenagailuak garraiatzearekin lotutako zereginak egiten direnean, ED21eko COVID-19 jarduera-protokoloa bete beharko da.

3. ZEREGINEN DESKRIBAPENA

Egungo pandemia-egoera dela eta, Hezkuntza Sailaren eta ISEI-IVEIren helburuetako bat da Ebaluazio Diagnostikoa ahalik eta segurtasun-bermerik handiena eskainiz egitea, bai ikastetxeetako langile eta ikasleentzat, bai bertan inplikaturako Ikertaldeko langileentzat.

EDa euskarri informatikoan egiten da, eta ikastetxe bakoitzerako erabakiko da jarraitu beharreko metodologia, eskura dauden baliabideen arabera (ikastetxearen Wifiaren ezaugarriak, ordenagailu motak, softwarea, etab.).

Protokolo horrek Ebaluazio Diagnostikoaren prozesuko hiru egoera arautzen ditu:

- Ordenagailuak **mailegatzeko zerbitzua**, Ikertaldek kudeatuko duena.
- **Probak** EDa aplikatzeko erabiliko diren ikastetxeko **ordenagailuetan instalatzea**.
- **Datuak ateratzea** eta **probak desinstalatzea**, aplikazioa amaitu ondoren.

Hiru egoera horietan eta horietatik ondorioztatzen diren zereginetan beharrezkoa da jarduera-protokolo bat izatea, inplikaturako pertsona guztien osasuna eta segurtasuna bermatzeko.

4. JARDUERA-PROTOKOLOA

Protokolo horren ardatza oinarritzko neurri hauek dira:

- Aerosolak sortzea eta horien eraginpean egotea saihestea.
- Pertsonetako harremanak ahalik eta gehien murriztea.
- Ikastetxeetako mugikortasuna ahalik eta gehien murriztea.
- Objektuak ez kutsatzea eta horien bidez kutsatzea saihestea.

Aerosolak

Ikerketa askoren arabera, SARS-CoV-2 koronabirusaren kutsatze-bide nagusietako bat airekoa da, airea sudurretik eta ahotik botatzean sortzen ditugun aerosolen bidez.

Aerosolek kutsatzea saihesteko, neurri hauek hartu behar dira:

- FP2 maskarak erabiltzea: maskara nahitaez erabili beharko da denbora guztian. Maskara osasun-jarraibideen arabera jarri beharko da. Ondo jarrita egon behar du, sudurra eta ahoa estalita.
- Aireztapena. Aireztapena funtsezkoa da aerosolak lanean ari diren espazioan kontzentratu ez daitezen. Lan egin beharko da espazioa etengabe aireztatuta dagoela ziurtatuz.

Gutxieneko kontaktua pertsonekin

Bermatu beharko da ikastetxeetara joan behar duten Ikertaldeko langileek ahalik eta harreman txikiena izatea ikastetxeko langileekin, eta ikasleekin inolako harremanik ez izatea..

Ikastetxeetan mugikortasuna murriztea

Ahalik eta gehien saihestu beharko da zentrotik ibiltzea objektuak ez ukitzeko (eskulekuak, ateak...) eta beste pertsona batzuekin kontaktua izateko.

Saihestu objektuak kutsatzea

SARS-CoV-2 koronabirusaren beste kutsatze-bideetako bat objektuekiko kontaktua da, non birusak denbora bat irauten duen.

Ukimenaren bidez kutsatzea saihesteko, honako neurri hauek hartu behar dira:

- Eskuen higieena, gel desinfektatzaileak erabiliz.
- Manipulatu ondoren objektuak desinfektatzea..

Erabili beharreko produktuak Osasuna Ministerioa testatuak izan direnak eta beren bermea dutenak izango dira.

4.1. IKASTETXEETAN AURREZ AURRE EGON BEHAR DENEAN JARDUERA-PROTOKOLOA

Enpresako langileek ikastetxera joan behar badute, jarduera-protokolo hau bete beharko dute:

Ikastetxera joan aurretik

- Enpresak ikastetxearekin baieztatuko du hitzordua (eguna eta ordua).
- Enpresak ikastetxera joango diren pertsonen identifikazioa emango dio zentroari (izen-abizenak).
- Enpresak ikastetxeari galdetuko dio ea badagoen COVID protokoloan langileengan eragina duen neurri berezirik.
- Ikastetxeak Ikertaldeko langileak harrera egingo dituen pertsonaren izen-abizenak emango dizkio enpresari.
- Enpresako langileei harrera egiteaz arduratzen den ikastetxeko pertsona zentroaren sarreran egongo da zain.

Ikastetxera iristea

- Ikertaldeko langileak ezin izango dira ikastetxean sartu, harrera egiten dituen pertsona edo bere ordezkoa ez badago.
- Ikastetxeko arduradunak harrera egitean, Ikertaldeko langileek maskara behar bezala jarrita dutela egiaztatuko du.
- Ikertaldeko langileek ikastetxe bakoitzak bere instalazioetan sartzeko ezarrita dituen jarduera-protokoloak jarraitu beharko dituzte (tenperatura neurtzea, eskuen higieena, etab.).
- Ikertaldeko langileak ezin izango dira ikastetxetik mugitu, horretarako izendatutako pertsonarekin ez bada.
- Ikastetxeko arduradunak Ikertaldeko langileei lagunduko die ordenagailuetan probak instalatuko diren lekuraino, edo datuak atera eta probak desinstalatu diren lekuraino (azken biak aplikazioa amaitu ondoren).
- Gela behar bezala aireztatuta egongo da lana egiten den bitartean.

- Ikastetxeko arduradunak egiaztatuko du gela aireztatuta dagoela eta langileek eskuak desinfektatzen dituztela gelarekin objektuak manipulatzeko hasi aurretik.
- Ikertaldeko langileek maskara behar bezala jarrita eta gela aireztatuta eduki beharko dute denbora guztian.

Zereginaren garapena

- Ikastetxeko arduraduna Ikertaldeko langileekin egongo da bere lana egiten duten bitartean, edo harremanetan jartzeko modu bat emango die, zerbait behar badute. Horrela, Ikertaldeko langileak ikastetxean zehar ibiltzea eta beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea saihestu nahi da.
- Ordenagailuak manipulatu aurretik eta ondoren, eskuak garbituko dira gel desinfektatzaile batekin (erabili Osasun Ministerioak testatutako gel desinfektatzaile bat).

Zereginaren amaiera

Ordenagailuekin lan egiten denean (probak instalatzea edo datuak ateratzea eta probak desinstalatzea), zapi desinfektatzaileekin edo likidoarekin (azken kasu horretan, behin erabiltzeko paperean aplikatua) desinfektatuko da. Osasun Ministerioak testatutako produktuak erabili behar dira.

Ukitu edo manipulatu den guztia desinfektatu beharko da, bereziki ordenagailuak eta lanerako erabilitako mahiak.

Zapi desinfektatzaileak prozesu honi jarraituz pasatu behar dira:

- Ordenagailuaren kanpoaldea (karkasa) kanpotik desinfektatzea: goiko alde, behekoa eta aldeak.
- Teklatua desinfektatzea.
- Touchpad edo sagua desinfektatzea (azkena ukitu bada).
- Kargagailua eta kablea desinfektatzea.

Ez da ordenagailuen pantaila ukitu behar. Hori eginez gero, produktu jakin batekin desinfektatu behar da, eta behin erabiltzeko paper batean aplikatu. Paper hori pantailatik pasatuko da.

Ukitu diren objektu guztiak eta ordenagailuak desinfektatu ondoren, zapi desinfektatzaileak eta behin erabiltzeko papera bota behar dira, ikastetxeak zehazten duen tokian.

Lana amaitu ostean, eskuak gel desinfektatzaileaz garbitu behar dira.

Ikastetxetik irteera

Ikastetxeak izendatu duen arduradunak Ikertaldeko langileei lagunduko die irteeraraino.

4.2. MAILEGATZEKO ZERBITZURAKO JARDUERA-PROTOKOLOA

Enpresako langileek Ikertaldeko lokaletan ordenagailuen mailegu zerbitzuarekin zerikusia duten lanak egin behar dituztenean, enpresaren kontingentzia planeko jarraibide eta arauak bete beharko dituzte.

Ordenagailuak ikastetxeetara eramanez behar direnean, protokolo honi jarraitu beharko zaio:

Enpresatik ordenagailuen irteera

- Enpresak ordenagailuen bateriak kargatuko ditu.
- Bateriak kargatu ondoren, desinfektatu beharko dira bai ordenagailuak baita ikastetxei utziko zaizkien gainerako elementuak ere, zapi desinfektatzaileekin edo likidoarekin (azken kasu horretan, behin erabiltzeko paperean aplikatua). Osasun Ministerioak testatutako produktuak erabili behar dira.

Prozesu honi jarraituko zaio:

- Ordenagailuaren kanpoaldea (karkasa) kanpotik desinfektatzea: goiko aldea, behekoa eta aldeak.
- Teklatua desinfektatzea.
- Touchpad edo sagua desinfektatzea (azkena ukitu bada).
- Kargagailua eta kablea desinfektatzea.
- Pantaila desinfektatzea, horretarako produktu berezi bat erabiliz. Behin erabiltzeko paperean aplikatuko da, eta pantailan zehar pasatuko da.
- Ordenagailuak desinfektatu ondoren, eskuak gelez desinfektatuta manipulatu behar dira (Osasun Ministerioak emandako gel desinfektatzailea erabili).
- Ordenagailu eta kargagailu bakoitzak dagokion etiketarekin gutun azal baten barruan sartuta joango dira.
- Ordenagailuak eta ordenagailu beste gutun-azal kaxetan sartu. Gutun-azal hutsak ordenagailuak gordetzeko erabiliko dira aplikazioa amaitu ondoren.
- Kaxak zigitatu.
- Eskolara joan aurretik, enpresak hitzordua (eguna eta ordua) baieztatu behar du ikastetxearekin, eta entrega egingo duten pertsonak identifikatu.
- Enpresak ikastetxeari galdetuko dio ea badagoen COVID protokoloan langileengan eragina duen neurri berezirik.
- Ikastetxeak ordenagailuen harreraren arduradun bat izendatu beharko du, bere identifikazio datuak emango dizkio enpresari eta zein tokitan zain egongo den erabakiko du (ikastetxeko sarrera).

Ikastetxean

- Garraioaz arduratzen diren langileak ezingo dira zentrorra sartu harrera egiten dituen pertsona edo bere ordezkoa ez badago.
- Ikastetxeko arduradunak harrera egiten dituenean, garraioaz arduratzen diren langileek maskara behar bezala jarrita dutela egiaztatuko du.
- Garraioaz arduratzen diren langileek ikastetxe bakoitzak instalazioetan sartzeko ezarrita dituen jarduera-protokoloak jarraitu beharko diete (tenperatura neurtzea, eskuen higiena, etab.).
- Garraioaz arduratzen diren langileak ezin izango dira ikastetxetik ibili, horretarako izendatutako pertsonak lagunduta ez badaude.
- Ikastetxeko arduradunak garraioaz arduratzen diren langileei lagunduko die ordenagailuak dituzten kaxak utziko diren tokiraino, zigitatuta daudela egiaztatuz.
- Ordenagailuak adierazitako tokian utzi ondoren, ikastetxeko arduradunak garraioaz arduratzen diren langileei lagunduko die irteeraraino.

Ordenagailuen bilketa

- Eskolara joan aurretik, enpresak hitzordua (eguna eta ordua) baieztatu behar du ikastetxearekin, eta entrega egingo duten pertsonak identifikatu.

- Ikastetxeak ordenagailuen harreraren arduradun bat izendatu beharko du, bere identifikazio datuak emango dizkio enpresari eta zein tokitan zain egongo den erabakiko du (ikastetxeko sarrera).
- Ikastetxeak ziurtatuko du, ordenadore eta kargagailua bakoitzak gutun azalean ondo paketatuta daudela.
- Garraioaz arduratzen diren langileak ezingo dira zentrora sartu harrera egiten dituen pertsona edo bere ordezkoa ez badago..
- Ikastetxeko arduradunak harrera egiten dituen, garraioaz arduratzen diren langileek maskara behar bezala jarrita dutela egiaztatuko du.
- Garraioaz arduratzen diren langileek ikastetxe bakoitzak instalazioetan sartzeko ezarrita dituen jardura-protokoloei jarraitu beharko diete (tenperatura neurtzea, eskuen higieena, etab.).
- Garraioaz arduratzen diren langileak ezin izango dira ikastetxetik ibili, horretarako izendatutako pertsonak lagunduta ez badaude.
- Ikastetxeko arduradunak garraioaz arduratzen diren langileei lagunduko die ordenagailuak bilduko diren tokiraino.
- Ordenagailuak bildu ondoren, ikastetxeko arduradunak garraioaz arduratzen diren langileei lagunduko die irteeraraino.

Ordenagailuak enpresara iristea

- Ikastetxeak erabili dituen ordenagailuak Ikertaldeko biltegira iristen direnean, ikastetxeak ordenagailua paketatuta duen gutun-azala dagokion edukiontzira bota beharko da.
- 7. orrialdeko “**enpresatik ordenagailuen irteera**” atalean adierazitako prozesuari ekingo zaio berriro (desinfekzioa, enbalajea, etab.) ordenagailuen mailegua beste ikastetxe bati egiteko.